




BASAURI



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Urrezko kurutzeak laukotutako armarrria, San Migelen irudiaren dominaz kargatua: 1., gorrian urrezko kurutzea, hirustaduna, eta era berean lau izar, kantoi baktotxean bana; 2., erdibituta: a) gorrian, urrezko dorrea eta atean otso baltza, b) zilarrean zubia uhin urdin eta zilarrezkoen ganean; 3., urdinean hiru zumar-orri, honeek be uhin urdin eta zilarrezkoen ganean; 4., hiru pinu orlegi, bi eta bat.

AITAMEN HISTORIKOA

Uribeko merindadeko eleizatea. Arrigorriagako jurisdikzinokoa izan zan, eta, holanba, Basauriko historiako pasarte ugari Arrigorriagako eleizateagaz lotuta dagoz.

Erdi Aroan, bando-gerren garaian, Basaurin baegozan bandoen gotoretzeak, esaterako, Artunduaga dorretxea, abendañotarren leinukoena, edo Ariz dorretxea. Azken horrek ermitea, San Faustokoa, eta burdinola eukazan.

Bilboko uria sortu zanetik horren eraginpean egon zan, Galdakao, Bedia, Zaratamo eta Arrigorriaga lez, eta Erdi Aroan bertako etxe asko Bilboko jurisdikzinoan egozan. Gero galdu egin eban egoera hori, Bilbok ez zituen-eta izenda-

tzen bere menpe egozan etxeetako fidelak. Gauzak holan, eleiz kontuan ezeze, administrazio arloan be Arrigorriagaren menpe geratu eta eleizate horren auzune bihurtu zan. Geroago banandu egin zan jaurerriaren baimen barik, eta, hori dala eta, galdu egin eban Gernikako Batzar Nagusietan berba egiteko eta botua emoteko eskubidea.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo cuartelado por una cruz de oro y cargada con un escusón con la efigie de San Miguel: 1º, en campo de gules una cruz trebolada de oro, acompañada de cuatro estrellas de lo mismo, una en cada cantón; 2º, partido: 1º, de gules una torre de oro, con un lobo de sable en su puerta; 2º, de plata un puente de piedra sobre ondas de azul y plata; 3º, de azul tres panelas de plata sobre ondas de azul y plata; 4º, de oro tres pinos de sinople, dos y uno.

RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia de la merindad de Uribe. Perteneció a la jurisdicción de Arrigorriaga y, por tanto, muchos datos históricos de Basauri se encuentran enlazados con la historia de esta anteiglesia.

En el Medievo, durante las luchas de banderías, existieron en Basauri casas fuertes banderizas como la torre de Artunduaga, del linaje de los Abendaño y la torre de Ariz, con la ermita de San Fausto y una ferrería.

Junto con Galdakao, Bedia, Zaratamo y Arrigorriaga, se hallaron, desde la fundación de la villa de Bilbao, sometidas a la influencia de la misma. En la Edad Media, parte de sus casas pertenecían a la jurisdicción privativa de la villa aunque esta facultad se perdió posteriormente por desentenderse la adm-

nistración bilbaína del nombramiento de fieles de las casas que de ella dependían. Por tanto, no sólo en lo eclesiástico, sino también en lo civil, quedó supeditada a Arrigorriaga como un barrio o pedanía hasta que, efectuada su separación, sin consentimiento de Arrigorriaga ni del Señorío, perdió todo su derecho cívico a ser representada, con voz y voto, en las Juntas de Gernika.

